



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA  
2015/12/03

## **Foru Aldundia, lapurretak jasan dituen Babcock & Wilcox-eko instalazioetako dokumentuak zaintzeko prest agertu da**

Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatu andreak, Batzar Nagusietan izandako agerraldian gaur goizean adierazo dauenez, bere saila, azken hilebeteetan behin eta barrero lapurretak jasaten ari diran Sestaoko Babcock & Wilcox enpresako instalazioak izandakoetan oraindino geratzen diran dokumentuez arduratzeko prest dago. Lapurretak dirala eta lantegiko bulegoetako dokumentu ondarea galtzea azaltzeko diputatu andrearen agerraldia eskatu dauen PP taldeari erantzunez, Aldundiko arduradunak adierazo dau barrero egingo dabela eskaerea, jaubeek aitatutako dokumentazio hori laga daien.

Bilbaok esan dauenez, Aldundiak ez dau oraindino erantzunik jaso fondoak Foru Artxibategian kontserbetako aurretik egindako beste erreklamazio bati jagokonez. “Fondo horreek ez badeuskuez lagaten, ezin izango dogu ezer egin”, holan egin ezkerro “arazo larriagoetan sartuko ginatekelako”, fondoak jabego pribaduan dagozalako, adierazo dau Bizkaiko Batzarren aurrean.

Ganera, Euskera eta Kulturako diputatu andreak ezeztu egin dau Aldundiak bizkarra emon deutsonik dagoan arazo bati, eta argitu gura izan dau Foru Aldundiak “ez dauela erantzukizun zuzenik, jabegoa pribadua dalako”. Ganera, bere berbetan, “Balco” izenez ezagutzen diran instalazioetan gertetan ari diran lapurretak dirala eta ez da ezelango salaketa formalik aurkeztu.

Halanda be, bere sailak bilerak izan ditu konkurtso administrazioagaz, Eusko Jaurlaritzagaz eta Sestaoko eta Trapagako udalakaz zelanbaiteko babesa emoteko aukerea aztertzeko. Erakunde horreek alkarregaz ari dira beharrean babesa merezi daben kontinentearen eta eukiaren elementuak babesteko “plan integrala” prestatan. “Egoerari buelta emoten ahaleginduko gara”, baina barrero adierazo dau oso gatxa eta arriskutsua dala “mugak” gainditzea, “bete beharreko lege esparrua” hor dagoalako.

Halanda be, Batzarretako EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek “itzikeriaren”, “hondamendiaren” eta “lotsaren” ganean egin dabe berba. “Erakunde pribaduen ganetik herri administrazioak egon behar dira”, adierazo dau Txusa Padrones koalizio abertzaleko batzordekideak. Bere esanetan, Aldundiaren “ezer ez egite hori gure oroimen kolektiboari gitxi erextea da”. Talde biak esku hartzearen alde agertu dira, ehun urte baino gehiago dituan Ezkerraldeko enpresaren dokumentu ondarea galdu ez daiten.

PP taldeko Arturo Aldecoak eskaria egin dau erakundeek “presionetan” jarraitu daien, dokumentu horreek, gitxienez, egoitza publikoren batean “preminaz” itzi ahal daitezkan. Ordezkeri popularra arduratuta agertu da gertau izan diran lapurretak dirala eta dokumentazio hori galdu egin daitekealako. Bere esanetan, dokumentu horreek “Bizkaia historia ekonomikoaren eta sozialaren parte bat” jasoten dabe. “Interes handikoak dira gure industria ezagutzeko”. Bere ustez, dokumentu horreetan beharginei buruzko informazio pertsonalen bat egotea zelanbaiteko babesa eskatzeko zergaitia izan daiteke.

PSE-EE taldeko Juan Otermentzat deigarria izan da 2010ean onartu zan Bizkaiko Batzar Nagusien ekimenaren aurrean erakutsi izan dan arreta faltea. Bertan agindua emoten zan,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Babcock & Wilcox-en zeozer egiteko enpresea itxi ostean, baina autortu dau Aldundiak “ezin dauela” jaube pribadu batzuei behin eta berrero eskariak egitea “baino askoz gehiago egin”.

#### EZEZKOA MINIATURA PARKEA EREGITEARI

Beste alde batetik, Euskera eta Kulturako batzordeak ez dau onartu, Aldundiak, Bizkaian “miniaturako gaikako parke bat egiteko” aukerak aztertu daizan PP taldearen arauz besteko proposamen bat. Parke horretan Lurralde Historikoko monumentuen eta leku garrantzitsuen eskalako berreginak jarriko litzateke, holan, lurraldean dagoan kultura eta aisia eskintza osatzeko, Madurodamen (Herbehereak) dagoanaren antzera. EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bildu ekimenaren kontra agertu dira, eta Podemos Bizkaia abstenidu egin da.

Proposamena defendidu dauen Arturo Aldecoa 2009. urtean Bizkaiko Batzarretan aurkeztutako ekimena berreskuratu dau. Urte haretan “baztertu” egin zan, krisi ekonomikoa zala eta. Batzordekide popularraren eretziz egin beharreko inbertsinoa “10 milioi eurokoa” izango litzateke, eta bere ustez, Hagatik gertu dagoanaren antzeko miniatura parkea oso erakargarria izango litzateke familian egiten dan turismorako, eta beharrezko osagaia lurraldean dagoan kultura eta aisia eskintza osatzeko. “Diru asko da, baina uste dogu inbertsino horrek gehiago sortuko dauela”. “Txinan hainbat ari dira egiten”, esan dau.

Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek ez dabe “begi txarrez” ikusten popularren ekimena, baina uste dabe une ekonomikoak ez dauela une honetan holango inbertsinoari ekiteko aukerarik emoten. Podemos Bizkaia taldeko Elsa Pamparacuatrok esan dauenez “premina gehiagoko” beste lehentasun eta esku-hartze batzuk dagoz.

Foru Gobernuari eusten deusien alderdi biek –EAJ-PNV-k eta PSE-EE-k– be ez dabe argi ikusten ekimena. Juan Otermin sozialistaren eretziz, “espazio eta inbertsino handiak eta mantentze-lan asko” eskatzen dau. Zalantzan jarri dau instalazio horreek jendea erakarteko daukan ahalmena eta elementu horreek lurraldearen kultur proposamenari “ez deusiela gauza askorik gehitzen” kritikau dau.

Ildo horretan, EAJ-PNV taldeko Celia Gómezek gehitu dau miniaturen parkeak ez dauela laguntzen Kulturako sailaren helburuetako bat bera be beteten. Helburu horreek Bizkaiko kultur ondarearen kontserbazinoa, ikerketea edo ezagutarazotea dira. Sozialistek bezela, “nahiko ibilpide txikiko” aisiako elementua eta eregiteko eta kontserbetako oso garestia dala uste dabe jeltzaleek.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
03/12/2015

## **La Diputación se muestra dispuesta a custodiar los documentos de las saqueadas instalaciones de Babcock & Wilcox**

La diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha apuntado esta mañana, en una comparecencia en las Juntas Generales, la posibilidad de que su departamento se haga cargo de los documentos que aún quedan en las antiguas instalaciones de la Babcock & Wilcox, en Sestao, que vienen sufriendo en los últimos meses saqueos continuos. En respuesta al PP, que pedía su comparecencia para que explicara la pérdida de patrimonio documental en las oficinas de la fábrica fabril como consecuencia de estos robos, la responsable foral ha señalado que volverán a insistir a los propietarios de titularidad privada para que se avengan a ceder dicha documentación.

Bilbao ha informado de que la Diputación no ha conseguido obtener respuesta de otra reclamación cursada con anterioridad para conservar los fondos de la empresas en sus archivos y ha explicado la dificultad que entraña el caso. “Si esos fondos no son cedidos, no podemos hacer nada”, ya que de lo contrario “nos meteríamos en líos mayores” al estar los mismos en una propiedad privada, ha señalado.

Asimismo, la diputada de Euskera y Cultura ha negado que la Diputación haya dado la espalda a la problemática existente, y ha querido aclarar que la Institución foral carece de “responsabilidad directa porque la propiedad es privada”. Además, según ella, no se ha presentado ninguna denuncia formal ante los saqueos que se están produciendo desde hace meses en las instalaciones conocidas popularmente como “La Balco”.

Aún así, su departamento ha mantenido reuniones con la administración concursal, el Gobierno Vasco y los ayuntamientos de Sestao y Trapagaran, para estudiar la posibilidad de ofrecer algún tipo de protección. Dichas instituciones trabajan conjuntamente en un “plan integral” para proteger aquellos elementos del continente y contenido merecedores de protección. “Intentaremos dar la vuelta a la situación” pero ha advertido nuevamente de la dificultad que conlleva sobrepasar los “límites”, ya que existe “un marco legal que cumplir”.

Sin embargo, los grupos junteros de EH Bildu y Podemos Bizkaia han hablado de “dejadez”, “catástrofe” y “vergüenza”. “Por encima de las instituciones privadas, tienen que estar las administraciones públicas” ha señalado Txusa Padrones apoderada de la coalición abertzale que cree que la “inacción” de la Diputación es un “desprecio a nuestra memoria colectiva”. Las dos formación han abogado por intervenir para evitar la pérdida del patrimonio documental de la centenaria empresa de la Margen Izquierda.

Arturo Aldecoa, del PP, ha pedido que las instituciones insistan en “presionar” para que estos documentos puedan ser al menos depositados con carácter “de urgencia” en alguna dependencia pública. El representante popular ha mostrado su preocupación por la pérdida de esta documentación, producida por los sucesivos saqueos, documentos que contienen, según él, “parte de la historia económica y social de Bizkaia”. “Tienen alto interés para conocer nuestra



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

industria”. A su juicio, el hecho de que esos documentos contuvieran información personal de los trabajadores, sería causa “factible” para exigir algún tipo de protección.

A Juan Otermin, del PSE-EE, le ha llamado la atención la indiferencia a una iniciativa de las Juntas Generales de Bizkaia aprobada en el año 2010 que ya instaba a actuar en la Babcock & Wilcox tras el cierre de la empresa, aunque ha reconocido que “poco más puede hacer” la Diputación que instar a unos propietarios privados.

### RECHAZO A CONSTRUIR UN PARQUE DE MINIATURAS

Por su parte, la comisión de Euskera y Cultura ha rechazado una proposición no de norma del PP que pretendía instar a la Diputación a promover un estudio sobre las posibilidades de ubicar en Bizkaia “un parque temático en miniatura” con reproducciones a escala de monumentos y lugares emblemáticos del Territorio, que complete la oferta cultural y de ocio existente, al estilo del ubicado en Madurodam (Holanda). La iniciativa ha sido rechazada por PNV, PSE-EE y EH Bildu, mientras que Podemos Bizkaia se ha abstenido.

El defensor de la proposición, Arturo Aldecoa, ha recuperado una iniciativa presentada en la Cámara vizcaína en el año 2009 que fue “aparcada” en su momento por la crisis económica. El apoderado popular que ha cifrado la inversión en “10 millones de euros”, según un estudio preliminar, cree que un parque de miniaturas similar al del instalado cerca de La Haya sería un elemento tractor del turismo familiar y un complemento “necesario” para la oferta cultural y de ocio existente en el territorio. “Es mucho dinero, pero creemos que esa inversión genera bastante más”. “En China, están haciendo varios”, ha señalado.

Podemos Bizkaia y EH Bildu no ven la iniciativa popular “con malos ojos” pero consideran que el momento económico no permite iniciar ahora una inversión de este tipo. Hay otras prioridades e intervenciones “más urgentes”, ha señalado Elsa Pamparacuatro de Podemos Bizkaia.

Tampoco los dos partidos que sustentan al Gobierno foral –PNV y PSE-EE- ven clara la iniciativa. Para el socialista Juan Otermín, la misma requiere de “grandes espacios e inversiones, y mucho mantenimiento”. Ha cuestionado el poder de atracción de estas instalaciones, al tiempo que ha criticado que estos elementos “no aportan gran cosa” a la propuesta cultural del territorio.

En esta línea, Celia Gómez, del PNV, ha añadido que el parque de miniaturas no contribuiría a cumplir ninguno de los objetivos del departamento de Cultura como son la conservación, investigación o difusión del patrimonio cultural vizcaíno. Al igual que los socialistas, los jeltzales creen que sería un elemento de ocio “de alcance bastante limitado”, y muy caro de construir y de mantener.